

### Oinarrizko informazioa

Europar Batasuneko datuak babesteko araudi orokorrean aurreikusitakoari jarraikiz, jarraian informazioa emango zaizu Kutxabank Pensiones, SAU Entidad Gestora de Fondos de Pensionesi emandako zure eta/edo hirugarrenen datu pertsonalak aurrekontratuko eta/edo kontratuko harremanean tratatzeko moduaren inguruan, osasun datuak barne.

| <b>Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa</b> |   |
|---|---|
| <b>Arduraduna</b>                                     | Kutxabank Pensiones, SAU, Entidad Gestora de Fondos De Pensiones  |
| <b>Helburua</b>                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>Pentsio planaren kontratazioa formalizatzea, kudeatzea eta/edo egikaritzea.</li> </ul>   |
| <b>Legitimazioa (oinarri juridikoa)</b>               | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratua egikaritzea.</li> </ul>  |
| <b>Jasotzaileak</b>                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Organismo publikoak.</li> <li>Datuetara sarbidea eduki ahal izango dute sozietatearen taldeko beste sozietateek, tratamenduaren arduradun direnak, zurekiko kontratuko harremana kudeatzeko banaketa eta/edo zentralizazio zerbitzuak emateko. Horrez gain, zure datuetara sarbidea eduki ahal izango dute hirugarren batzuek ere, tratamendua egiteko ardura dutenak banaketa zerbitzuak, zerbitzu profesionalak (adibidez, perituak, abokatuak), mezularitza eta dokumentuen kudeaketa zerbitzuak eta zerbitzu informatikoak emateko.</li> </ul> |
| <b>Nazioarteko transferentziak</b>                    | Zure datu pertsonalak ez dute jasango inolako nazioarteko datu transferentziarik.   |
| <b>Datuen kategoria eta jatorriak</b>                 | <ul style="list-style-type: none"> <li>Tratatuko diren datu pertsonalak (hala badagokio, osasun datuak barne) izango dira pentsio planaren kontratazioaren esparruan emandakoak.</li> <li>Tratatuko diren datuak izan daitezke partaideari buruzkoak eta pentsio planarekin lotutako beste edozein pertsona fisikorenak.</li> </ul>   |
| <b>Eskubideak</b>                                     | Erabili ahal izango dituzu datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko, horien aurka egiteko, horien tratamendua mugatzeko eta horiek mugitzeko eskubideak, informazio gehigarrian adierazitakoari jarraikiz.   |
| <b>Informazio gehigarria</b>                          | Hemen ikus dezakezu datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarri eta xehatua: <a href="http://www.kutxabank.com">www.kutxabank.com</a> .   |

## **Informazio gehigarria eta xehatua**

Europar Batasuneko datuak babesteko araudi orokorrean aurreikusitakoari jarraikiz, jakinarazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak, eta aurrerantzean emandakoak tratamenduaren arduradunak tratatuko dituela, hala badagokio, osasunari buruzkoak barne, jarraian adierazita dagoen bezala.

Ez baduzu ematen eskatutako nahitaezko eta ezinbesteko informazioa, ezingo da garatu kontratuko harremana zurekin.

### **1. Tratamenduaren arduraduna**

Kutxabank Pensiones, SAU, Entidad Gestora de Fondos de Pensiones ("**Sozietatea**"), egoitza soziala Euskadi plazan, 5 zenbakian (Bilbo, Bizkaia, Espainia) duena.

### **2. Datuen Babesaren Ordezkaria ("DBO")**

DBOak du ardura bermatzeko Sozietatean datuak babesteko araudia betetzen dela. DBOarekin harremanetan jar zaitezke honako helbide honetan: [dpd@kutxabankseguros.es](mailto:dpd@kutxabankseguros.es).

### **3. Zure datu pertsonalak tratatzearen helburuak eta legitimazioa**

Zure datu pertsonalak tratatuko dira pentsio planaren kontratazioa formalizatzeko, kudeatzeko eta egikaritzeko, eta tratamendu horren oinarri legitimatzailea da pentsio planaren kontratua egikaritzea.

Horrez gain, osasunari buruzko datuak tratatzen badira, jakinarazten dizugu Sozietateak osasun datuak ere kudeatzen dituen heinean, 1/2002 Errege Dekretu Legegileak, azaroaren 29koak, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzekoak, babestu egiten duela datu horiek tratatzea aseguru kontratua egikaritzeko beharrezkoa bada, eta osasun publikoko alorrean interes publikokoa bada.

Zure datu pertsonalak ez dira erabaki automatikoekin kudeatutako, profilak sortzea barne.

### **4. Gordetzeko epeak**

Sozietateak zure datuak gordeko ditu zurekin kontratu harremana mantendu bitartean, baita harreman hori bukatzean ere, aplikagarriak diren zigor arauak, arau zibilek, fiskalek, administratiboek edo merkataritza arauak ezartzen duten irautze edo preskribatze epean.

### **5. Datuen hartzaileak**

Jakinarazten dizugu zure datuak ez zaizkiela hirugarrenei emango, salbu eta legezko xedapen batek hala ezartzen duenean, hala dagokien erakunde publikoei.

Horrez gain, datuetara sarbidea eduki ahal izango dute sozietatearen taldeko beste sozietateek, tratamenduaren arduradun direnak, zurekiko aurrekontratuko eta kontratuko harremana kudeatzeko banaketa eta/edo zentralizazio zerbitzuak emateko. Horrez gain, zure datuetara sarbidea eduki ahal izango dute hirugarren batzuek ere, tratamendua egiteko ardura dutenak banaketa zerbitzuak, zerbitzu profesionalak (adibidez, perituak, abokatuak), mezularitza eta dokumentuen kudeaketa zerbitzuak eta zerbitzu informatikoak emateko.

Zure datu pertsonalek ez dute jasango inolako nazioarteko datu transferentziarik.

## 6. Interesdunaren eskubideak

Jakinazten dizugu Sozietatearen bezero gisa honako eskubide hauek erabili ahal izango dituzula: zure datu pertsonaletara sartzeko eskubidea, jakiteko zein datu tratatzen ari diren eta zein tratamendu eragiketa egiten ari diren haiekin; zehatza ez den edozein datu pertsonal zuzentzeko eskubidea; zure datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea; zure datuen aurka egiteko eskubidea, hau da, eskatzeko zure datu pertsonalak ez tratatzea, zure egoera pertsonalari lotutako arazoak direla medio; zure baimena erretiratzeko eskubidea, hori bada zure datuak tratatzeko legezko oinarria; egoera jakin batzuetan zure datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskatzeko eskubidea (adibidez, zure datuen zehaztasuna aurkaratu duzunean, aurkaratzea egiaztatu bitartean); eta datuak mugitzeko eskubidea, hau da, Sozietateari eman dizkiozun datu pertsonalak formatu egituratu batean, erabilera komunean eta irakurketa mekanikokoan jasotzekoa eta tratamenduaren beste arduradun bati bidaltzekoa.

Eskubide horiek erabiltzeko, idatzizko eskaera bat bidali beharko duzu helbide elektronikoko honetara: [ejercicioderecho@kutxabankseguros.es](mailto:ejercicioderecho@kutxabankseguros.es), edo Sozietatearen zuzendaritzari, honako hau adierazita: "Eskubideak erabiltzea".

Zure eskubideak erabiltzeko, eskaeran adierazi beharko duzu zure izen osoa eta erabili beharreko eskubidea; harekin batera zure NANaren edo nortasuna egiaztatzeko dokumentu baliokidearen kopia bat bidali beharko duzu.

Horrez gain, eskubidea izango duzu Datuen Babeserako Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkezteko, zure eskubideak bete ez badira.

## 7. Datuen kategoria eta jatorria

Tratatuko diren datu pertsonalak (hala badagokio, osasun datuak barne) izango dira pentsio planaren kontratazioaren esparruan emandakoak.

Tratatuko diren datuak izan daitezke partaideari eta/edo ekarpena egin duenari buruzkoak eta kontratatutako pentsio planarekin lotutako beste edozein pertsona fisikorenak.